



**ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2018KO URRIAREN 8EKO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2018.10.08.  
**Ordua:** Arratsaldeko 18:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.

### **Zinegotziak:**

Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn., lanagatik.

### **Bertaratu ez direnak:**

Igor Ugalde Salazar jn., lanagatik.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Paskual Oskotz Gonzalez jauna: oihan aprobetxamendu eskaera.
- 3.-Adinduentzako tresnak erosteko proposamena.
- 4.- Antsoingo Udaleko adierazpena.
- 5.-2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana: baserrietako bideak moldatzeko esleitzeko onespena.
- 6.-Arantzako Hirigintzako Udala Plana: lurraldea okupatzeko estrategia eta ereduaren agiria tramitatzeko onespena.
- 7.-Alkatearen ebazpenak.
- 8.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2018ko irailaren 10ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez,  
ONARTU DUTE.

## **2.-PASKUAL OSKOTZ GONZALEZ JAUNA: OIHAN APROBETXAMENDUA ESKAERA.**

Ikusirik Paskual Oskotz Gonzalez jaunak aurkeztutako eskaera, Elutsandi alderdian (4. poligonoko 100. lurzatian) dauden akazien aprobetxamendua egiteko,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Paskual Oskotz Gonzalez jaunari eskatutako oihan aprobetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, aprobetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Eskatzaileari jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

## **3.-ADINDUENTZAKO TRESNAK EROSTEKO PROPOSAMENA.**

Udalak komenigarria ikusten du bi tresna erostea: bi banku kirola egiteko.

Ikusirik Agapito Urban Industries S.L. empresak dituen aukerak (pedalekin eta besoak mugitzeko bizikletarekin).

Ikusirik bi tresnen prezioa (2.331,43 euro, BEZ barne).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako bi bankuak erostea, 2019. urteko aurrekontuaren kargura.

## **4.- ANTSOAINGO UDALEKO ADIERAZPENA.**

Ikusirik Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak igorritako adierazpena, bestetan gertatukoari buruz:

### **“ANTSOAINGO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

“Jaiak direla eta gure herriko Rafael Alberti plazan jarritako esku gorri erraldoiaren aurkako eraso irmoki salatu nahi du Antsoaingo Udalak. Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin elkar lanean, Berdintasun Arloak ditugun hainbat Tokiko Erakundek egiten dugun lanaren zati bat da esku hau, gure herriari Iruñeko Udalak utzitakoa.

Erasotua izan den eskuak Nafarroako jendartearen emakumeon indarkeriaren kontrako konpromisoa ordezkatzan du, eta Udalaren ustez, nahita egindako eta aurrez pentsatutako eraso matxista da. Horrexegatik, Udalbatzako udal talde guztiek onartutako eraso sexisten aurkako protokoloa martxan jarri da.

Kezkaz begiratzen diegu horrelako gertakari bortitzei mugimendu feministak eta jendarteak bere osotasunean egindako lorpenenen aurrean erantzuten duen egitura patriarkal batean gertatzen baitira. Lorpen hauek benetan bermatzen dituzte emakumeon



**ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

eskubide zibilak eta jendarte osoaren onurako dira, izan ere, giza eskubideen garapen handiagoa ahalbidetzen dute. Hori dela eta, gizon heldu eta gazteei dei berezia egiten diegu lorpen hauen parte izan daitezzen eta ez ditzaten jarrera eta eraso matxistak babestu; era berean, emakume heldu eta gazteak animatu nahi ditugu edozein erasoren aurrean erantzutera eta beste pertsonen laguntza bilatzera.

Beraz, Antsoingo herritarrei dei egiten diegu datorren larunbatean, irailaren 15ean, Antsoingo Rafael Alberti plazan erasotua izan den esku gorria konpontzeko egingo den talde ekintzan parte hartzera. Bertaratuko diren pertsona guztien artean eragindako kalteak konponduko ditugu.

Era berean adierazi nahi dugu, gertakari honek berdintasunaren alde eta bortizkeria matxistaren kontrako lanean jarraitzeko beharra berresten duela, uste baitugu, hau dela emakume guztion giza eskubideen bermea lortzeko bide bakarra, gure herrian eta baita munduan ere.

Ez Antsoainen, ez beste inon, eraso sexistarik ez!”

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako adierazpena onartzea.
- 2) Akordio Antsoingo Udala eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari jakinaraztea.

#### **5.-2017-2019 ALDIRAKO TOKI INBERTSIOEN PLANA: BASERRIETAKO BIDEAK MOLDATZEKO ESLEITZEKO ONESPENA.**

Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak irailaren 29an emandako 393/2017 ebazpenaren bidez, onesten da 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean Toki Programazioaren atalean sartutako behin betiko zerrenda, zehazki, bizitoki iraunkorretara doazen eta biziguneen arteko bideak moldatzeko obrak.

Arantzako Udalak, xedatutako moduan, aurkeztu ditu beharrezkoak diren dokumentuak eta aldeko txosten teknikoa, ekonomikoa eta juridikoa egin dira.

Ondoren, Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak uztailaren 31an emandako 540/2018 ebazpenaren bidez, Aranako erreka bidearen proiektuaren aurrekontua finkatzen da eta behin behineko ezartzen 2017-2019 eperako Toki Inbertsioen Planaren kargura egin daitekeen gehieneko ekarpen ekonomikoa.

Ondoren, Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak abuztuaren 16an emandako 570/2018 ebazpenaren bidez, Albizko bidearen proiektuaren aurrekontua finkatzen da eta behin behineko ezartzen 2017-2019 eperako Toki Inbertsioen Planaren kargura egin daitekeen gehieneko ekarpen ekonomikoa.

Ondoren, Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak abuztuaren 16an emandako 572/2018 ebazpenaren bidez, Haritzondo-Etxezarreta bidearen proiektuaren aurrekontua finkatzen da eta behin behineko ezartzen 2017-2019 eperako Toki Inbertsioen Planaren kargura egin daitekeen gehieneko ekarpen ekonomikoa.

Ondoren, Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak abuztuaren 16an emandako 573/2018 ebazpenaren bidez, Mainborda bidearen proiektuaren aurrekontua finkatzen da

eta behin behinekoz ezartzen 2017-2019 eperako Toki Inbertsioen Planaren kargura egin daitekeen gehieneko ekarpen ekonomikoa.

Kontuan hartuz 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen 18/2016 Foru Legeak ezarritako epeak obrak esleitu eta egiteko.

Ikusirik Idazkariaren txostena.

2/2018 Foru Legea jarraituz, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako obrak kontratatzeko espedientea hastea.
- 2) Kontratuaren baldintza plegua onartzea.
- 3) Prozedura erraztua erabiltzea eta ondorengo enpresei gonbidapenak igortzea: I.M.Arrixko S.L., Iñaki Taberna Iturria, Peio Aginaga Macicior, Erlaitz eraikuntzak S.L. eta Jesus Maria Madariaga Vergara enpresei.

#### **6.-ARANTZAKO HIRIGINTZAKO UDAL PLANA: LURRALDEA OKUPATZEKO ESTRATEGIA ETA EREDUAREN AGIRIA TRAMITATZEKO ONESPENA.**

Ikusirik Arantzako Hirigintzako Udal Planari buruz egindako herritarrek parte hartzeko plana eta aurretiazko lurraldea okupatzeko estrategia eta eredia izeneko dokumentua.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako herritarrek parte hartzeko plana eta aurretiazko lurraldea okupatzeko estrategia eta eredia izeneko dokumentua onartzea.
- 2) Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, interesdunek aztertu eta bidezko iruditzen zaizkien ekarpenak eta iradokizunak egiteko.

#### **7.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2018ko 112. ebazpenetik 127. ebazpena arte.

#### **8.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 21:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin da, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Mentxu Peña Lizarazu and.

